

SEKTORE PUBLIKOAN KUDEAKETA HOBETZEKO PRAKTIKA EGOKIEI BURUZKO BLOG-A. FUNTZIONAMENDU ARAUAK

1. ERABILTZAILEAK ETA SARBIDEA.

Bloga mugatua izango da, aldez aurretik erregistratu diren erabiltzaileek bakarrik izango dute erabiltzeko aukera. Erregistratu ez direnak ongietorria emateko orrira bakarrik sartu ahal izango dira.

Blogaren erabiltzaileak soilik Udaletxe eta Sektore Publikoko entitateetako langile edo ordezkariak izango dira.

Blogean dauden informazioa eta agiriak ez dira publikoak, hori dela eta, blogaren erabiltzaileek hitza ematen dute ez dietela blogari buruzko informaziorik emango blogarekin zerikusirik ez duten pertsoneri.

2. ERREGISTROA

Blogeko kide egin nahi duenak, ongietorria emateko orrialdean sartu eta erregistro-inprimakia bete beharko du, eta bertan, izena, erakundea, helbide elektronikoa, eta beste zenbait datu adierazi beharko ditu. Ez da nahitaezkoa argazkia sartzea, baina komenigarria izango litzateke, blogaren erabiltzaileak elkar ezagutzuz joan daitezen.

Moderatzaileak erabiltzaile bakoitzaren erregistroa baliozkotu beharko du, eta eskatzaileari posta-elektronikoz berretsiko dio. Baliozkotzat jotzeko, arau hauek onartu beharko dira aldez aurretik.

3. BLOGAREN EDUKIA

3.1 ORRIAK

Dokumentazioa biltzeko erabiltzen diren gaiak. Kudeaketako 4 arlo nagusi identifikatu ditugu:

- Giza Baliabideen kudeaketa
- Kudeaketa ekonomikoa
- Udal mantenimendua
- Herritarrei arreta eta parte hartzea.

3.2 SARRERAK

Eztabaidarako gaiak dira.

3.3 IRUZKINAK

Kideek iruzkinak egin ahal izango dituzte bai orriei bai sarrerei buruz.

4. ERABILTZAILEEK ZER EGIN DEZAKETE?

Moderatzaileak sortuko ditu orriak eta sarrerak. Kideetako batek orri edo sarrera bat sortu nahi badu moderatzaileari proposatuko dio posta elektronikoz (infoeuskadi@gestionpublica.es), argitaratu nahi den testua atxikituz (EAeko bi hizkuntza ofizialetako baten). Moderatzaileak aztertu eta egilearen izenean argitaratuko du.

Blogeko kideek iruzkinak sartu ahal izango dituzte orrietan eta sarreretan. Moderatzaileak iruzkinak balidatu beharko ditu argitaratu aurretik.

Consultores de Gestión Pública – Euskadi

infoeuskadi@gestionpublica.es